ZIZURKILGO UDALA

2024IKIE0003

“ATXULONDO” TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN EMAKIDA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA	**PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACION, MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO, DE LA CONCESIÓN DE SERVICIOS DE HOSTELERIA PARA LA EXPLOTACIÓN DEL BAR-RESTAURANTE “ATXULONDO”**

LIZITAZIOAREN EZAUGARRIAK / CARACTERÍSTICAS DE LA LICITACIÓN	
Xedea/Objeto	**“ATXULONDO” TABERNA-JATETXEA USTIATZEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN EMAKIDA** **CONCESIÓN DE SERVICIOS DE HOSTELERIA PARA LA EXPLOTACIÓN DEL BAR RESTAURANTE “ATXULONDO”**
Gehienezko gastua (udala) / Límite máximo de gasto (Ayuntamiento)	0 euro
Exekuzio egiteko gehienezko epea / Plazo máximo de ejecución	**2 urte/** años (**beste 2 urteko luzapen batekin**/ con una prórroga de 2 años)
Kontratatzeko prozedura / Procedimiento de Contratación	**Prozedura irekia/** Procedimiento abierto
Prezioak berrikustea/ Revisión de precios	**Ez** No
Behin betiko bermea / Garantía definitiva	**3.213 € (kontratuaren hasierako epeari – 2 urte- dagokion negozio-zifraren %5ª)** 3.213 € (5% de la cifra de negocio del periodo contractual inicial – 2 años-).
Sortatan banatzea/ División en lotes	**Ez** No

BOTERE ESLEITZAILEA (ERAKUNDE KONTRATATZAILEA) ETA BERE ORGANOAK	**PODER ADJUDICADOR (ENTIDAD CONTRATANTE) Y SUS ÓRGANOS**
Erakundea: Zizurkilgo Udala	Entidad: Ayuntamiento de Zizurkil
Organo kontratazailea: Alkatetza	Órgano de contratación : Alcaldía
Kontraturen arduraduna: - Izena: Alazne Garmendia Txurio - Teléfonoa: 943 69 10 12 - Email: harrera@zizurkil.eus	Responsable del contrato: - Nombre: Alazne Garmendia Txurio - Teléfono: 943 69 10 12 - Email: harrera@zizurkil.eus

ZIZURKILGO UDALA

2024IKIE0003

I. KONTRATUAREN EDUKIA

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1.KONTRATUAREN XEDEA

1. 1. Plegu honetan araututako kontratuaren xedea Zizurkilgo ATXULONDO TABERNA-JATETXEA zerbitzu emakida bidez kudeatzea da. Administrazio kontratatzaileak zerbitzu publikoaren titulartasuna gordeko du, eta particular baten esku utziko du haren kudeaketa, bere arrisku eta zoriaren arabera.

Kontratuaren xedea taberna-jatetxe zerbitzua bi urtez kudeatzea da, eta bi urteko luzapen batekin luza daiteke, gehienez ere lau urtez, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko, toki-erakunde honek zuzenean kudeatzeko baliabide pertsonal eta materialik ezean.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28.1 artikuluan ezarritakoa betez (aurrerantzean, SPKL), kontratu hau egiteko arrazoia da herritarrei taberna-zerbitzua eskaini behar zaiela Zizurkilgo beste udal zerbitzuen inguruan elkartzeko (kultur-etxea, liburutegia, …) eta aisialdirako leku bat eskaini ahal izateko.

Definitutako kontratua zerbitzu-emakida kontratua da, SPKLren 15. artikuluaren arabera.

Emakidadunak taberna-jatetxearen eremua erabiliko du, Udalaren kultur etxeko behe solairuan kokatua. Agiri honen I. eranskinean jasota dago eremuaren **planoa**. Honako gune hauen erabilera esklusiboa izango du:

a) 134 m2-ko lokala, taberna-jatetxerako erabilia.

b) 48 m2-ko azalerako terraza, 30 m2-ko eta 18 m2-ko bi eremu bereizitan kokatua, tabernako sarreraren bi aldeetan, eraikinaren fatxada nagusiaren ondoan.

Eta kultur etxeko eraikinaren behe solairuan dauden komunen erabilera partekatua.

1. OBJETO DEL CONTRATO

1. 1. El objeto del contrato regulado por este pliego es la gestión mediante concesión de servicios del BAR-RESTAURANTE ATXULONDO de la localidad de Zizurkil, reservándose la titularidad del servicio público la Administración contratante y encomendando su gestión a un particular, a su riesgo y ventura.

El objeto del contrato comprende la gestión del servicio de bar-restaurante durante dos años, prorrogable con una prórroga más de dos años, hasta un máximo de cuatro, con la finalidad de obtener rentabilidad económica, y ello en defecto de medios personales y materiales para su gestión directa por esta Entidad Local.

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 28.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (en adelante, LCSP), la celebración del presente contrato se justifica en la necesidad de ofrecer un servicio de bar a la ciudadanía y para ofrecer un lugar de reunión y ocio en los alrededores de otros servicios municipales (casa de cultura, biblioteca, …).

El contrato definido tiene la calificación de contrato de concesión de servicios, de acuerdo con el artículo 15 de la LCSP.

El espacio a utilizar por el concesionario es el delimitado por el Bar-Restaurante situado en la planta baja de la Casa de Cultura municipal de acuerdo con el **plano** que se acompaña como Anexo I a este pliego, y comprende el uso exclusivo de:

a) 134 m2 del local destinado bar-restaurante.

b) 48 m2 de superficie de terraza distribuida en dos espacios diferenciados de 30 y 18 m2 a ambos lados del acceso al bar, junto a la fachada principal del edificio en que se ubica.

Udalak emakidadunaren esku jarriko du kontratuaren xedea, bai gorago adierazitako lokala zein eremuak eta baita bertan dauden altzariak eta tresneria ere. Plegu honetako II. eranskinean datoz inbentariatuta (aurreko emakidadunari betetzeko eskatu zitzaion inbertsioen zerrenda bera da, gaur egun eginda dauden inbertsioak izanik).

1. 2. Taberna-jatetxe zerbitzuaren emakida honen barruan ez dira sartzen kultur-etxeko gainerako eremuak.

Y el uso compartido de los aseos existentes en la planta baja del edifico de la Casa de Cultura del que forma parte.

El Ayuntamiento pone a disposición del concesionario el objeto del contrato, que consiste en el local y supercicies antes señaladas así como en los muebles y utensilios existenten en los mismos. Se han inventariado en el anexo II de este pliego (es la propia relación de inversiones que se exigió realizar a la anterior concesionaria y que ya están ejecutadas a día de hoy).

1. 2. En el ámbito de esta concesión del servicio de Bar-Restaurante no entran el resto de espacios de la casa de cultura.

2. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak **zerbitzuak emateko izaera administratiboa** izango du, eta bertan jasotzen ez den guztian, ondoko legeek xedatutakoari jarraituko zaio:

-2014/24/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Direktiba indargabetzen duena (aurrerantzean “Kontratuen Direktiba”).
-2014/23/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, emakiden kontratuak eskeitzekoa (aurrerantzean “Emakiden Direktiba”).
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
-Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea (aurrerantzean SPKLTB).
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onesten duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan xedatutakoa kontraesaten ez duen guztian.

-Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretua, Espainiako ekonomiaren desindexaziori buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.
-Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

2. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO

El contrato tendrá **carácter administrativo de concesión de servicios** y, en lo no previsto en el mismo, se estará a lo dispuesto en las siguientes leyes:
- Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero, sobre contratación pública, por la que se deroga la Directiva 2004/18/CE (en adelante, "Directiva de contratos").
- Directiva 2014/23/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de febrero, sobre la oferta de contratos de concesiones (en lo sucesivo, "Directiva de concesiones").
- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
- Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante TRLCSP).
- Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, en lo que no contradiga lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
- Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.
- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de

- Zizurkilen euskararen erabilera sustatzeko plana -AROA - 2024-2027.
- Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
-3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Toki Araubideko gaiei dagozkien eta indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Testu Bateratuan xedaturikoarekin kontraesanean ez datorren guztian.
-Osagarri gisa zuzenbide administratiboko gainontzeko arauei jarraituko zaie eta, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatukoei.

Plegu honez gain, kontratu izaera izango dute hurrengo dokumentuek:
- Preskripzio teknikoen agiria.
- Kontratua formalizatzen duen dokumentua.

3. EMAKIDAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

3.1 ADMINISTRAZIOAK ORDAINDU BEHARREKO PREZIOAK:

Ez da horrelakorik aurreikusten.

3.2 . EMAKIDUNAK ORDAINDU BEHARREKO KANONA.

7.200 euroko gutxieneko kanona, lizitatzaileak hobetu beharrekoa. (Kontratua gauzatzeko bi urteetarako kanona, BEZaren menpe ez dagoena, hau da, **300 euro hileko**).

1.- Lizitatzaileek hileroko ekarpen ekonomikoa eskainiko diote Udalari, kanon kontzeptuan, eta ekarpen hori inolaz ere ez da izango taulan azaltzen diren kopuruak baino txikiagoa. Kopuru hori gorantz hobetu ahal izango dute lizitatzaileek beren eskaintzetan.

2.- Esleipendunak, horren truke, zerbitzuaren ustiaketagatik lortutako diru-sarrerak jasoko ditu.

Kanona hilaren 1etik 5era bitarteko ordainagiriaren bidez ordainduko da. Zergapekoa ez den zuzenbide publikoko diru-sarrera baten kanona denez, horiek ezarritako moduan ordaintzen ez badira, Zerga Bilketako Arau Orokorrean aurreikusitako berandutze-errekarguak eta dagozkien interesak ordainduko dira, bai eta kasuan

las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Plan para impulsar el uso del euskara en Zizurkil – AROA – 2024-2027.
- Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública
- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- El Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones vigentes en materia de Régimen Local, en lo que no se oponga a lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
- Supletoriamente se regirán por las demás normas de derecho administrativo y, en su defecto, por las normas de derecho privado.

Además de este pliego, tendrán carácter contractual los siguientes documentos:
- Pliego de prescripciones técnicas.
- Documento que formaliza el contrato.

3. RÉGIMEN ECONÓMICO DE LA CONCESIÓN

3.1. PRECIOS A ABONAR POR LA ADMINISTRACIÓN:

No se prevén.

3.2 CANON A PAGAR POR EL CONCESIONARIO.

Canon mínimo de **7.200 €**, a mejorar por la persona licitadora (en adelante, licitadora). (Canon para los **dos años** de ejecución del contrato, que no está sujeto a IVA, es decir, **300 euros al mes**).

1.- Las licitadoras ofertarán al Ayuntamiento una aportación económica mensual en concepto de canon, que en ningún caso será inferior a las fijadas en la tabla. Esta cantidad podrá ser mejorada al alza por las licitadoras en sus correspondientes ofertas.

2. La persona adjudicataria recibirá como contraprestación los ingresos que obtenga de la explotación del servicio.

El canon se pagará mediante recibo del 1 a 5 de cada mes. Al tratarse de el canon de un ingreso de derecho público no tributario, la falta de pago de los mismos en los términos establecidos, llevará consigo los recargos de demora previstos en el Reglamente General de Recaudación y el abono de los intereses que

kasuko zehapenak ezarri ere, agiri honetan ezartzen den moduan.

correspondan, además de la imposición de las correspondientes sanciones tal y como se establece en el presente pliego.

Eta horrek ez du esan nahi kanona ordaintzea funtsezko betebeharra ez denik kontratua suntsiarazteko.

Y ello, sin perjuicio de considerar el abono del canon como obligación esencial a efectos de resolución del contrato.

EPEALDIA / Período	**Euro/hilean** Euros/mes
Lehen 2 urteak	300
Luzapeneko 2 urteak	300

4. FINANTZAKETA

Kontratu honen ezaugarri ekonomikoak direla eta, ez da aurrekontu finantzaketarik behar.

Era berean, eta SPKLren 14. eta 15. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratista emakidadunak **bere gain hartuko du zerbitzua egiteak dakarren eragiketa-arriskua**, eta horregatik ez du Udal honen inolako prestazio ekonomikorik jasoko kontratuari dagokionez.

4. FINANCIACIÓN

Dadas las características económicas de este contrato, no se precisa financiación presupuestaria.

Así mismo, y de acuerdo con lo previsto en los artículos 14 y 15 de la LCSP, la empresa contratista concesionaria (en adelante, la contratista) **asumirá íntegramente el riesgo operacional** correspondiente a la realización del servicio, razón por la que no recibirá prestación económica alguna de este Ayuntamiento en relación con el contrato.

- Aurrekontu ekitaldia/ Ejercicio presupuestario: 2025
- Sarreren aurrekontu partida/ Partida presupuestaria de ingresos: 2 0900.550.000.00.01 (51)

5. GAUZATZEKO EPEA

1.- Zerbitzua emateko epea, guztira, **BI URTEKOA** izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori luzatu ahal izango da, **BI URTEKO iraupeneko luzapen** bakar batekin, beti ere aldeek horrela erabakitzen badute espresuki, eta kontratua amaitu baino lehen hartu beharko dena. Nolanahi ere, kontratuak, guztira, luzapena barne, ezin izango du LAU urte baino gehiago iraun.

OHARTARAZPENA: *Atxulondo kultur etxearen eraikinean obra burutzea aurreikusita dago (birgaitze energetikoa), Eusko Jaurlaritzak eta Energiaren Euskal Erakundeak bideratutako NextGenerationEU fondoekin zati batean finantziatutakoa. Obra horren baitan, tabernan jatetxean aurreikusten den eragina honakoa da: bizpahiru astez lokaleko lehioak birgaitzerakoan jarduera gelditu beharko da.*

5. PLAZO DE EJECUCIÓN

1.- El plazo total de la concesión de servicio de hostelería será de **DOS AÑOS**, contados a partir de la firma del contrato, siendo susceptible de prorrogarse, siempre y cuando las partes lo acuerden expresamente, antes de la finalización de aquel, por una única **prórroga de DOS AÑOS más**, sin que la duración total del contrato, incluidas la prórroga, pueda exceder de CUATRO años.

ADVERTENCIA: *En el edificio de la casa de cultura de Atxulondo está prevista la ejecución de una obra (rehabilitación energética), financiada en parte por fondos NextGenerationEU tramitadas mediante el Gobierno Vasco y el Ente Vasco de la Energía. En el seno de dicha obra, la afección prevista con respecto al bar-restaurante es la siguiente: se deberá suspender la*

	actividad durante dos o tres semanas cuando se rehabiliten las ventanas del local.
Oraindik obra bera esleitu gabe dagoenez, plegu hau idazteko garaian ezin da adierazi zein datatan gertatuko den gelditze hori, baina obra osoaren exekuxioa 2026ko maiatza baino lehen amaitu eta justifikatu behar denez, aurreikus daiteke 2025-2026ko neguan zehar izan daitekela.	*Debido a que las obras se encuentran aún si adjudicar, no resulta posible saber las fechas de dicha suspensión a la hora de redactar este pliego, pero viendo que la ejecución total de la obra así como su justificación deben finalizar antes de mayo de 2026, se prevé que pueda ser durante el invierno 2025-2026.*
Taberna-jatetxearen jarduerari ahalik eta bidegabekeriarik txikiena eragiteko, taberna-jatetxearen eremuari zuzenean eragiten dion obraren egikaritze-fasean, kontratua eta betebeharrak etenda geratuko dira, eta aldi horretan kanonaren ordainketa eten egingo da. Kontratuaren iraupen osoari etendura denbora gehituko zaio. (Adibidez: kontratua bi astezz etenda egon bada, kontratuaren iraupena itundutakoa izango da, gehi bi aste).	*Con el fin de causar el menor agravio posible a la actividad de Bar-Restaurante, durante la fase de ejecución de la obra que afecte directamente a la zona de Bar-Restaurante, el contrato y sus obligaciones quedaran suspendidas, suspendiéndose durante dicho periodo el pago del canon. Se añadirá el tiempo de suspensión a la duración total del contrato. (Ejemplo: si el contrato ha estado suspendido dos semanas, la duración del contrato será la estipulada más dos semanas).*
2.-Bertan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik alderdietakoren batek kontratua bertan behera uzteko eskatuko balu, eta Udalak erabakiko balu egokia dela kontratua bertan behera uztea, esleipendunak ustiatze-zerbitzua ematen jarraitu beharko du –udalbatzak horrela iritziz gero- zerbitzua berriro lizitatu arte, edo gehienez lau hilabetez, beti ere Udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartzen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan aplikatuko diren prezioak kontratukoak izango dira.	2.- Si cualquiera de las partes solicitara la resolución del contrato por incumplimiento de las obligaciones en él establecidas, y el Ayuntamiento adoptase acuerdo reconociendo su procedencia, la persona adjudicataria quedará obligado a seguir prestando el servicio de explotación, si así lo estimare conveniente la Corporación, hasta la adjudicación de la nueva licitación que oportunamente se convoque, o por un periodo máximo de cuatro meses, contados desde la fecha del acuerdo municipal de resolución del contrato. En el transcurso de este plazo los precios aplicables serán los mismos del contrato.
Nolanahi ere, kontratazio-epea amaitu aurretik, aldeetako edozeinek salatu beharko du kontratua luzatzeko interes-falta, berariaz, salaketa indarrean sartuko den data baino sei hilabete (6) lehenago abisatuta.	En todo caso, antes de la finalización del periodo de contratación, cualquiera de las partes, deberá denunciar la falta de interés en prorrogar el contrato de forma expresa con un preaviso de seis (6) meses sobre la fecha de efecto de tal denuncia.
3.-Kontratua amaitzean, ustiaketaren xede diren elementu guztiak itzuliko zaizkio Udalari.	3.- Al término del contrato se producirá la reversión al Ayuntamiento de todos los elementos objeto de la explotación.
6. GASTUAK	**6. GASTOS**
Esleipendunak uraren, gasaren eta elektrizitatearen horniduratik, zaborra biltzetik eta abarretatik eratorritako gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek zuzenean ordainduko zaizkie enpresa hornitzaileei.	El/la adjudicatario/a está obligado/a a abonar los gastos derivados del suministro de agua, gas y electricidad, los de recogida de basura,..etc. que serán abonados directamente a las empresas suministradoras.
Era berean, ordaindutako fakturak hiru hilean behin ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du. Ordainagiriak ez aurkeztea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.	A su vez, deberá presentar un justificante de pago trimestralmente de las facturas pagadas. La no presentación de los justificantes de pago es causa de resolución del contrato.

Esleipendunak fidantzan kontsignatutako zenbateko bera zor badu horniduratan, kontratua suntsiarazi eta fidantza konfiskatzeko arrazoia izango da.

En caso de que el/la adjudicatario/a adeudara en suministros la misma cantidad que la consignada en la fianza, será causa de resolución e incautación de la misma.

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ezingo da berrikusi.

7. REVISIÓN DE PRECIOS

No será revisable.

8. BERMEAK

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen

8. GARANTÍAS

Garantía provisional: no se exige

Behin betiko bermea:

Zerbitzuaren emakidadunak, kontratu honetan hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa, SPKLren 107.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz (zerbitzu emakida), kontratazio-organoak finkatuko du kasu bakoitzean, administrazio-klausula zehatzen agirian, emakidaren izaeraren, garrantziaren eta iraupenaren arabera, eta, kasu honetan, honela zehaztuko da:

Garantía definitiva:

El/la concesionario/a del servicio, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas en este contrato, está obligado a constituir una garantía definitiva, cuyo importe, en aplicación de lo previsto en el artículo 107.4 LCSP (concesión de servicios) se fijará en cada caso por el órgano de contratación en el pliego de cláusulas administrativas particulares, en función de la naturaleza, importancia y duración de la concesión de que se trate, y en este caso, se determina de la siguiente manera:

1.- Behin betiko bermea 3.213 eurokoa izango da, hau da, kontratuaren hasierako 2 urtetako epearen negozioaren zenbatekoaren %5a (negozio-zifra urteko 32.138,00 eurotan kalkulatu da).

1.- La **garantía definitiva será de 3.213 euros**, es decir, el 5% de la cifra de negocios correspondiente a los dos años de plazo inicial del contrato (la cifra de negocio anual se ha estimado en 32.138,00 euros anuales).

2.- Bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta Zizurkilgo Udalaren gordailu-bulegoan gordailutuko da. Bermea eskudirutan eratu ahal izango da, edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetan (aurrerantzean, SPKL).

2.- El plazo para la constitución de la citada garantía será de diez días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, será depositada en la depositaría de este Ayuntamiento de Zizurkil y podrá constituirse en metálico, o bien en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la Ley de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP).

3.- Bermea, osoa zein partziala, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitu eta esleipendunak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren edo kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi ondoren.

3.- La devolución de la garantía, tanto total como parcial, en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la persona adjudicataria todas sus obligaciones contractuales o resuelto el contrato sin culpa de la contratista.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

II. PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN

9. JARDUNBIDEA ETA ESLEIPEN MODUA.

Kontratu honen esleipena gauzatzeko **jardunbide irekia** erabiliko da, SPKL-ko 131. eta 156tik 159era bitarteko artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki. **Izapidetzea ohikoa** izango da.

9. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se realizará por **el procedimiento abierto** de conformidad con lo previsto en los artículos 131 y 156-159. La **tramitación será ordinaria**.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.

10. ACREDITACIÓN DE LA APTITUD PARA CONTRATAR

Podrán presentar ofertas las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en prohibiciones para contratar, y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica.

10.1. Enpresarien **JARDUTEKO GAITASUNA** honela egiaztatuko da:

10.1 La **CAPACIDAD DE OBRAR** del empresario se acreditará:

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauren arabera arautzen diren adierazita egon beharko du eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon.

a) Los empresarios que fueren **personas jurídicas** mediante la escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

b) **Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresarien** jarduteko ahalmena egiaztatzeko, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen araberako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.

b) De los empresarios **no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo** por su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están establecidos, o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, en los términos que se establezcan reglamentariamente, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

c) **Atzerriko gainerako enpresariek** enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

c) **De los demás empresarios extranjeros**, con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluaren 3. atalaren bigarren paragrafoan 60. artikuluan adierazitako **kontratatzeko debekurik ez dutela** frogatu behar dute enpresariek. Horretarako, kasua zein den, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte. Horretarako eskuduntza duenak agiri horiek egin ezin baditu,

2. Sin perjuicio de lo establecido en el segundo párrafo del apartado 3 del artículo 140 de la Ley de Contratos del Sector Público, la prueba, por parte de los empresarios, de la **no concurrencia** de alguna de las **prohibiciones para contratar** reguladas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación

administrazioko agintaritzak, notario publiko batek edo erakunde profesional kualifikatu batek egindako erantzukizunpeko adierazpen batek ordez ditzake.

administrativa, según los casos, y cuando dicho documento no pueda ser expedido por la autoridad competente, podrá ser sustituido por una declaración responsable otorgada ante una autoridad administrativa, notario público u organismo profesional cualificado.

10.2. <u>ENPRESARIAREN KAUDIMENA</u>

10.2. LA <u>SOLVENCIA DEL/A EMPRESARIO/A:</u>

- **10.2.1 EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA**

- **10.2.1 SOLVENCIA ECONOMICA-FINANCIERA**

Enpresariaren ekonomia- eta finantza-kaudimena honako bide **hauetako baten bidez** egiaztatu ahal izango da:

La solvencia económica y financiera del/a empresario/a podrá acreditarse **mediante alguno** de los siguientes medios.

Erantzukizun zibileko asegurua, hirugarren eta langileentzako jardueratik erator daitezkeen arriskuak bermatzen dituena, negozioaren erantzukizun zibil orokorra eta ustiapenekoa bermatuz, ezbehar eta biktimagatiko estaldurarekin, edo, hala badagokio, poliza hori kontratatzeko konpromisoarekin, aseguru-etxearen eskaintza loteslearen bidez, lizitazio honen esleipendunak izanez gero, eta esleipendunak emakidaren aldian kontratatuko eta bere kargura mantenduko duena. Baldintza hori egiaztatu beharko da, baldin eta eskaintzarik onuragarriena bada ematen zaion epean.

Seguro de responsabilidad civil que garantice los riesgos que pudieran derivarse de la actividad para terceros y trabajadores, garantizando la responsabilidad civil general y de explotación del negocio, con una cobertura por siniestro y víctima, o, en su caso, compromiso de contratación de dicha póliza, mediante aportación de oferta vinculante de compañía aseguradora, en el supuesto de que resulten adjudicatarios de la presente licitación, que la persona adjudicataria contratará y mantendrá a su cargo durante el periodo de concesión. Este requisito se deberá acreditar en caso de resultar la oferta más ventajosa en el plazo que se le conceda.

Ondare garbia, edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, lizitazio-iragarkian eta kontratuaren pleguetan eskatutako zenbateko bereko edo handiagoko urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dagoen azken ekitaldi ekonomikoaren itxieran. Aktiboaren eta pasiboaren arteko ratioa kontuan hartu ahal izango da botere esleitzaileak kontratazioaren pleguetan datu hori baloratzeko erabiliko diren metodoak eta irizpideak zehazten baditu. Metodo eta irizpide horiek gardenak, objektiboak eta ez-diskriminatzaileak izan beharko dute.

Patrimonio neto, o bien ratio entre activos y pasivos, al cierre del último ejercicio económico para el que esté vencida la obligación de aprobación de cuentas anuales por importe igual o superior al exigido en el anuncio de licitación y en los pliegos del contrato. La ratio entre activo y pasivo podrá tenerse en cuenta si el poder adjudicador especifica en los pliegos de la contratación los métodos y criterios que se utilizarán para valorar este dato. Estos métodos y criterios deberán ser transparentes, objetivos y no discriminatorios.

Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimena nahikoa dela egiaztatzeko, kasu bakoitzerako erregelamenduz zehazten diren ziurtagiriak eta agiriak aurkeztu beharko dira, honako hauen artetik: banku-ziurtagiria, lanbide-arriskuengatiko aseguruaren poliza edo ziurtagiria, urteko kontuak eta enpresaburuaren aitorpena, enpresaren negozio-bolumen osoa adierazita. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak egiaztatu egingo ditu, sektore publikoko kontratazio-organo guztien aurrean, bertan jasotakoaren arabera, eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimeneko baldintzak.

La acreditación documental de la suficiencia de la solvencia económica y financiera del empresario se efectuará mediante la aportación de los certificados y documentos que para cada caso se determinen reglamentariamente, de entre los siguientes: certificación bancaria, póliza o certificado de seguro por riesgos profesionales, cuentas anuales y declaración del empresario indicando el volumen de negocios global de la empresa. En todo caso, la inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público acreditará frente a todos los órganos de contratación del sector público, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, las condiciones de solvencia económica y financiera del empresario.

- 10.2.2. LAGUNTZA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA	**- 10.2.2 SOLVENCIA TÉCNICA - PROFESIONAL**
Honako bide hauen bidez egiaztatu beharko da:	Se deberá acreditar mediante los medios siguientes:
A.- **Enpresak kontratua gauzatzeko atxiki beharko ditu zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan emateko gai diren langileak.** Euskararen ezagutza honela egiaztatu ahal izango da:	A.- **La empresa deberá adscribir a la ejecución del contrato personal apto para la prestación del servicio en las dos lenguas oficiales de la CAPV.** El conocimiento del euskera podrá acreditarse:
1. Zerbitzua emango duten pertsonek Europako Erreferentzia Markoaren ahozkoan B2 gaitasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztuz.	1. Presentando la documentación acreditativa de que las personas que prestarán el servicio disponen de la competencia B2 oral en el Marco Europeo de Referencia.
2. Udal-zerbitzu teknikoek gaitasun hori egiaztatzeko balorazioa eginez.	2. Mediante la valoración de dicha competencia por parte de los servicios técnicos municipales.
B.- **Tabernan edo kafetegian gutxienezko urtebeteko (12 hilabeteko) eskarmentua edukitzea**, gizarte segurantzako lan-bizitza edota enpresa ziurtagiri bidez egiaztatuko dena.	B.- **Tener una experiencia mínima en bar o cafetería de la menos un año (12 meses), que se acreditará mediante certificados de la vida laboral de la Seguridad Social o certificados de empresa.**
C.- **Sukaldeko lanetan jardungo duten pertsonen kaudimen teknikoari dagokionez, ostalaritza edota sukaldaritza ikasketa titulua** egiaztatzea, gutxienez Lanbide Heziketako I. mailakoa, dagokion dokumentu edo ziurtagiriaren bidez, edo bestela **gutxienez 12 hilabeteko sukaldaritza esperientzia** egiaztatzea, gizarte segurantzako lan-bizitza edota enpresa ziurtagiri bidez..	**C.- En cuanto a** las personas que **van a estar adcritas a la cocina, acreditar título de estudios de hostelería y/o cocina,** mímino de nivel Formación Profesional I, mediante el documento o certificado correspondiente, o si no, **acreditar un mínimo de 12 meses de experiencia en cocina**, mediante la vida laboral de la Seguridad Social o certificados de empresa.
D.- Halaber, kontratua gauzatzen duenak **elikagaien manipulatzaile titulua** eduki beharko du edo kontratua esleitu aurretik lortzeko konpromisoa hartu beharko du.	D.- Asimismo, la persona que ejecute el contrato deberá estar en posesión del **título de manipulador de alimentos** o comprometerse a obtenerlo antes de la adjudicación del contrato.
Baldintza horiek esleipenja baino lehen egiaztatu beharko dira horretarako emandako epean, eta esleipena emateko ezinbesteko baldintzak dira.	Estas condiciones deberán acreditarse con anterioridad a la adjudicación en el plazo concedido al efecto, y son condiciones indispensables para su otorgamiento.
10.3 <u>SAILKAPENA (SPKL, 77.1.b) artikulua):</u>	**10.3 <u>CLASIFICACIÓN (art. 77.1.b LCSP):</u>**
Ez da eskatzen	No se exige
11. PUBLIZITATEA	**11. PUBLICIDAD**
Kontratuaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa Zizurkilgo Udaleko kontratatzailearen profilean iragarriko da.	La licitación, adjudicación y formalización del contrato será objeto de anuncio en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Zizurkil.

Profil horretara www.zizurkil.eus web-orriaren bidez sartuko da.

El acceso a dicho perfil se realizará a través de la página web siguiente www.zizurkil.eus.

12. ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA BESTELAKO BETEBEHARRAK

Kontratuaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa kontratzailearen profilean argitaratuko dira.
Profilera honako web orriaren bitartez irits daiteke: www.zizurkil.eus

Proposamenak lizitazio elektronikorako www.contratacion.euskadi.eus plataformaren bitartez aurkeztuko dira, **proposamenak aurkezteko epea irailaren 1ean amaituko da, 13:00etan.**

Proposamenak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte horrela mantentzea ziurtatzeko.

Proposamenak artxibo elektronikoetan aurkeztuko dituzte lizitatzaileak edo honen ordezkari diharduen pertsonak.

Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko fitxategi batean, artxibo elektronikoaren edukia zehaztuko da, zenbaki bidez zerrendatuta (HAKLEOren 80.1. artikulua).

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak.

Eskaintza bat aurkezteak enpresariak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du

Lizitazioan parte hartzeko eskaintza **BI ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztu behar dira:

12. PROPOSICIONES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

La licitación, adjudicación y formalización del contrato será objeto de anuncio en el perfil de contratante.
El acceso a dicho perfil se realizará a través de la página web siguiente www.zizurkil.eus

Las proposiciones se presentarán a través de la plataforma de licitación electrónica www.contratacion.euskadi.eus; **el plazo de presentación de las proposiciones finalizará el día 1 de septiembre a las 13:00 horas.**

Las proposiciones serán secretas y, para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.

Las proposiciones se presentarán en archivos electrónicos por la licitadora o persona que ostente su representación.

En el interior de cada sobre o archivo electrónico se hará constar en hoja o fichero independiente su contenido, enunciado numéricamente (art.80.1 RGLCAP).

Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurara en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

La presentación de una proposición supone la aceptación incondicionada por el empresario de las cláusulas del presente Pliego.

Las proposiciones para tomar parte en la licitación se presentarán en **DOS ARCHIVOS ELECTRÓNICOS:**

ZIZURKILGO UDALA

2024IKIE0003

BAT ZK.KO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: «GAITASUNA ETA KAUDIMENA».

Honako dokumentu hauek edukiko ditu:

A) Enpresa lizitatzailearen edo lizitatzaileen izaera juridikoa ziurtatzen duten agiriak, eta, kasua balitz, bere ordezkaritzarena.

Izaera juridikoa honako modu hauetakoren batean ziurtatuko da:

a) Bere izenean edo ahaldun gisa proposamena aurkezten duen pertsonaren Estatuko Nortasun Agiria. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: askietsi eta legeztatutako ahalordea.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, Merkataritzako Erregistroan inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresaburuak espainiarrak ez badira, baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, kasu horretan dagozkion erkidegoko xedapenak kontuan hartuta.

c)Proposamena enpresa-batasun batek aurkezten duenean, horretaz gain, enpresa bakoitzeko legezko ordezkariek sinaturiko agiria aurkeztu beharko dute. Bertan adieraziko da eratuko den Aldi Baterako Enpresa Batasunean bakoitzak duen partaidetza, eta kontratuak dirauen bitartean, Administrazioaren aurrean horien guztien erabateko ordezkaritza izango duen pertsona izendatuko da.

B) Lizitatzaileek erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar dute, SPKLaren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dutela agertzeko.

ARCHIVO ELECTRÓNICO Nº UNO: "CAPACIDAD Y SOLVENCIA"

Contendrá los siguientes documentos:

A) Los documentos que acrediten la personalidad jurídica de la empresa o empresas licitadoras y, en su caso, su representación.

La personalidad jurídica se acreditará de alguna de las siguientes formas :

a) Documento nacional de identidad de la persona que presenta la proposición en nombre propio o como apoderado. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder bastanteado y legalizado.

b) Cuando la licitadora sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Cuando se trate de empresarios no españoles de Estados miembros de la Unión Europea, deberán acreditar su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

c) Cuando la proposición se formule por una agrupación de empresas, deberá presentarse, además, documento firmado por los representantes legales de todas ellas en el que se señale la participación de cada una en la Unión Temporal de Empresas a constituir y designarse la persona que durante la vigencia del contrato habrá de ostentar la plena representación de todas ellas frente a la Administración.

B) Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 71 de la LCSP.

C) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituztela frogatzen duten agiriak, dagozkion erakundeen egiaztagirien bitartez. Egiaztagiri hori eduki ezean, betebehar horiek beteta dituztela adierazten duen zinpeko aitorpena aurkez dezakete.

C) Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, mediante certificaciones emitidas por las correspondientes instituciones, que podrá ser sustituida, si esto no es posible, por una declaración responsable en tal sentido.

D) Jakinarazpenak egiteko helbide elektroniko bat.

D) Una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones.

E) Lizitatzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala justifikatzen duten agiriak:

E) Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional de la licitadora.

Berdin jokatuko da langile berriren bat edo ordezkoren bat kontratatzean.

Se actuará del mismo modo al contratar un nuevo empleado o al contratar algún sustituto.

Kontratazioko mahaiari dagokio aurkeztutako dokumentazioak enpresaburuaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa nahikoa justifikatzen duen ala ez erabakitzea.

Corresponde a la mesa de contratación determinar si la documentación presentada justifica suficientemente la solvencia económica y financiera y la solvencia técnica del empresario.

F) JEZn alta emana dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, indarrean dagoen ekitaldiari badagokio alta aurkeztuz, edo beste kasuetan JEZko azkeneko ordainagiria aurkeztuz; bi kasuetan, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izana adieraziko duen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da.

Edota, hala badagokio, esleipena baino lehen alta emango duenaren zinpeko aitorpena.

F) Acreditación de estar dado de alta el I.A.E., en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E., en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.

O, cuando proceda, declaración jurada de que se dará de alta antes de la adjudicación.

G) Atzerriko enpresak badira, aitorpena egin beharko dute Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adieraziz, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

G) Para las empresas extranjeras, la declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

—BI ZK.KO ARTXIBO ELEKTRONIKOA «AUTOMATIKOKI BALORATZEN DIREN IRIZPIDEEN GAINEKO GUTUN-AZALA»

—ARCHIVO ELECTRÓNICO Nº DOS: «SOBRE DE CRITERIOS VALORABLES AUTOMÁTICAMENTE»

1.- Lizitatzaileak, artxibo honen bitartez, plegu honen 13. puntuan esandako dokumentazioa aurkeztuko du.

1.- La licitadora deberá presentar, a través de este archivo, la documentación requerida el punto 13. De este pliego.

Proposamen Eredua, agiri honen **III. eranskinean** jasotako ereduari egokitua.

Modelo de Proposición ajustada al modelo recogido en el **Anexo III** de este documento.

Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren gutxieneko

Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, fuera inferior al

kanona baino txikiagoa bada, nabarmen desberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

canon mínimo establecido, variase sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de Contratación mediante resolución motivada, sin que sea causa bastante para el rechazo el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, si ello no altera su sentido.

13. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu hau esleituko da esleipen ugari erabiliz, kalitate-prezio erlazio onenaren arabera.

Esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak, ematen zaien haztapenaren arabera zerrendatuta, honako hauek dira:

13. CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

El contrato se adjudicará aplicando diversos criterios, en función de la mejor relación calidad-precio.

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación, relacionados por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:

Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak, formulak aplikatuz: 100 puntu.

Criterios evaluables automáticamente, mediante aplicación de fórmulas: 100 puntos

1. Eskainitako kanona: (60 puntu gehienez).

1. **Canon ofertado: (hasta 60 puntos).**

Balorazioa egingo da lizitazio-kanonaren gainean egiten den eskaintza kalkulatuta.

La valoración se realizará calculando la oferta que se realice sobre el canon de licitación.

Ezarritako kanonaren zenbatekoa berdintzen duen eskaintzari 0 puntu egokituko zaio, eta aldiz 10 puntu kanon handiena eskaintzen duenari. Bestelako eskaintzek lizitazio kanonarekiko duten aldearengatik dagokien puntuak proportzionalki lortuko dute, eskaintza hoberenarekiko, beti ere hurrengo formula matematikoaren arabera:

A la oferta que iguale el importe del canon establecido, le corresponderán 0 puntos y 10 puntos a la que ofrezca el mayor canon. Las otras ofertas obtendrán los puntos que les correspondan por su diferencia con el canon de licitación proporcionalmente a la mejor oferta, de acuerdo con la siguiente fórmula matemática:

$$P = 60 \times [(Kae - KI) / (Kge - KI)]$$

P = Puntuazioa / Puntuación
KI = Lizitazio kanona / Canon de licitación
Kae = Azterturako eskaintzaren kanona / Canon de la oferta a evaluar
Kge = Eskainitako gehieneko kanona / Canon máximo ofertado

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak ere. Eta SPKLren 149. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

En principio, se considerarán como desproporcionadas o anormales las ofertas conforme a lo indicado en el art. 85 del Reglamento General de la Ley de contratos de las Administraciones Públicas (R.D. 1098/2001, de 12 de octubre). Y se estará a lo dispuesto en los arts. 149 de la LCSP.

2. <u>Esperientzia</u> (20 puntu gehienez).

Eskaintzailearen esperientzia profesionala baloratuko da.

Ez dira baloratuko kaudimen tekniko-profesionala egiaztatzeko erabiliko diren 12 hilabeteak, soilik hortik gorakoak baizik.

Gutxieneko kaudimen profesionalerako eskatzen diren 12 hilabetetik gora egiaztatzen duen urte oso bakoitzeko (12 hilabete) puntu 1 baloratuko da (20 puntu arte).

Esperientzia gizarte segurantzako lan-bizitza edota enpresa ziurtagiri bidez egiaztatuko da. Ez bada egiaztatzen edota egiaztagiria desegokia edo nahikoa ez dela ulertzen bada, ezingo da baloratu.

Urte osoa betetzen ez duten hilabeteak proportzionalki baloratuko dira (1:12= 0,0833 puntu hilabete oso bakoitzeko). Eragin horietarako hilabete bat kontsideratuko da 30 egun. Ez dira baloratuko ezta prorrateatuko ere hilabetera (30 egunera) iristen ez diren egunak.

3.- <u>Ekitaldiak</u>: (10 puntu gehienez)

Udaleko sailekin, herriko elkarteekin edo esleipendunaren kabuz baina kontratuaren xedeari lotuta antolatutako ekitaldien proposamena: lehiaketak, torneoak, ekitaldi solidarioak, hitzaldiak...

Puntu 1 emango da gutxienez egun batean zehar garatzeko diren ekitaldi bakoitzeko, 10 puntura arte gehienez.

4.- <u>Menuan alergenoak identifikatzea</u>: (5 puntu gehienez)

Eskainitako menuan plater bakoitzak daramatzan alergenoak identifikatuko dituenaren zinpeko aitorpena aurkezten bada (III eranskinean dagokion atala betez) edota eskaintzaileak eskainiko duen asteko menu eredu bat aurkezten bada, plater bakoitzean alergenoak adierazten dituena, bost puntu arte emango zaizkio (gehienez 5 puntu).

5.- <u>Garbiketa produktu ekologikoak erabiltzea</u> (5 puntu)

2. <u>Experiencia</u> (hasta 20 puntos).

Se valorará la experiencia profesional del ofertante.

No se valorarán los 12 meses utilizados para acreditar la solvencia técnico-profesional, sino solo los que superen dicho período.

Se valorará con 1 punto por cada año completo (12 meses) que se acrediten por encima de los 12 meses exigidos como solvencia técnico-profesional (hasta 20 puntos).

La experiencia se acreditará mediante certificados de la vida laboral de la Seguridad Social o certificados de empresa. Si no se acredita o la acreditación se considera inadecuada o insuficiente, no se podrá valorar.
Los meses que no alcances un año completo se valorarán proporcionalmente (1:12= 0,0833 puntos por cada mes completo). A estos efectos, se considerará un mes 30 días. No se valorarán ni prorratearán los días que no lleguen a completar un mes (30 días).

3.- <u>Eventos</u>: (hasta 10 puntos)

Propuesta de actos organizados con los departamentos del Ayuntamiento, las asociaciones locales, o por cuenta del adjudicatario, siempre que tengan relación con el objeto del contrato: concursos, torneos, actos solidarios, conferencias...

Se dará 1 punto por cada acto propuesto para ser desarrollado a lo largo de un día, hasta un máximo de 10 puntos.

4.- <u>Identificación de alérgenos en el menú</u>: (hasta 5 puntos)

Si presenta una declaración jurada de que se van a identificar los alérgenos que lleva cada plato ofrecido en el menú (cumplimentando el apartado correspondiente del Anexo III) o si presenta un menú semanal tipo donde se detallen los alérgenos contenidos en cada plato, se puntuará con 5 puntos (hasta 5 puntos).

5.- <u>Utilización de productos de limpieza ecológicos</u> (5 puntos)

Taberna garbitzeko erabilitako produktuak ekologikoak izatea baloratuko da. Horretarako honako zigilua duten produktuak erabiltzeko konpromezua hartzen duenak (edozein momentutan, udalak hala eskatuta, akreditatu beharra izango duena) gehienez 5 puntu jasoko ditu, zehaztasun honekin:

- Xaboia (puntu 1)

- Desengrasantea (puntu 1)

Se valorará que los productos utilizados para la limpieza del bar-restaurante sean ecológicos. Para ello, quien se comprometa a utilizar los productos que cuenten con el siguiente sello (lo cual deberá acreditarse en cualquier momento a petición del Ayuntamiento) recibirá una puntuación máxima de 5 puntos, con el siguiente detalle:

- Jabón (1 punto)

- Desengrasante (1 punto)

1. Europako etiketa ekologikoa		2. Beltxarga zuria ekoetiketa	
3. Aingeru urdina ekoetiketa			

1. Europako etiketa ekologikoa		2. Beltxarga zuria ekoetiketa	
3. Aingeru urdina ekoetiketa			

- Komuneko xaboia (1 puntu)
- Komuneko papera birziklatua (puntu 1)
- Otorduetan eskuzapiak berrerabilgarriak izatea (1 puntu)

- Jabón de baño (1 punto)
- Papel de baño reciclado (1 punto)
- Que las servilletas de las comidas sean reutilizables (1 punto)

14. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AGIRIAK KALIFIKATZEA

14.1.- BAT zk.ko artxibo elektronikoak zabaltzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea.

14. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE LOS SOBRES

14.1.- Apertura de los archivos electrónicos nº UNO y calificación de la documentación administrativa

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du

1.- Concluido el plazo de presentación de proposiciones, la mesa de contratación procederá a la

lizitatzaileek BAT zenbakiko artxibo elektronikoan garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentazio aurkeztuan, alderdi interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango die mahaiak lizitatzaileei, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera.

apertura y calificación de la documentación administrativa presentada por las licitadoras, en tiempo y forma, en el denominado archivo electrónico nº UNO. Si la mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará a las partes interesadas, concediéndoles un plazo no superior a 3 días naturales para su corrección o subsanación. De igual forma, la mesa podrá recabar de las licitadoras la presentación de documentación complementaria o aclaratoria de la ya aportada, concediendo un plazo de 5 días naturales para su presentación.

2.- Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

2.- Finalmente, la mesa de contratación procederá a determinar las licitadoras que son admitidas a la licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo.

14.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira eta, deialdian horrela adierazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

14.2.- Apertura y examen de los archivos electrónicos nº DOS

1.- La apertura de los archivos electrónicos nº DOS se hará en acto público y, en el caso de indicarse en su convocatoria, podrá seguirse en directo a través del enlace que se indique en la citada convocatoria.

2.-Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa adierazten den formularekin bat ebaluatuko da.

2.- La documentación contenida en estos archivos electrónicos será evaluada conforme a la fórmula indicada.

3.-Proposamenen bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez badator; planteatutako proposamena argi ezagutzeko aukera ez badago…), lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, zehaztutako eredua asko aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena badago edo eskaintzaileak bideraezin bihurtzen duen akatsa edo funtsik eza duela onartzen badu, Mahaiak ebazpen arrazoituan baztertuko du. Ereduan hainbat hitz aldatu edo ez badira aipatzen, batak edo besteak zentzua aldatzen ez badute, proposamena baztertzeko ez da nahikoa izango.

3.- Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, excediese del presupuesto base de licitación, variara sustancialmente el modelo establecido, o comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la mesa, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, con tal que lo uno o la otra no altere su sentido, no será causa bastante para el rechazo de la proposición.

14.3.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera jardundako guztia erasota lagako da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

14.3.- Actas de la mesa de contratación

De todo lo actuado conforme a los apartados anteriores, se dejará constancia en las actas correspondientes, en las que se reflejará el resultado del procedimiento y sus incidencias.

14.4- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzaren publizitatea eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazio, onarpen edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaile ukituei.

2.- Lizitatzaile bat kanpoan uzten bada, egintza hori ekitaldi publikoan bertan jakinaraziko zaio hari, enpresaren ordezkaria ekitaldian bertan dagoela- eta hori posible baldin bada, edo, bestela, jarraitu egingo dira 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bestelako prozedurak.

3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

14.4- Publicidad del resultado de los actos de la mesa de contratación y notificación a las licitadoras afectadas

1.- La calificación, admisión o exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante. Se excluirá aquella información que no sea susceptible de publicación de conformidad con la legislación vigente. Todo ello, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a las licitadoras afectadas.

2.- El acto de exclusión de una licitadora podrá ser notificado a esta en el mismo acto público, si fuera posible por encontrarse quien representa a la empresa presente en dicho acto o, en su defecto, con arreglo a los restantes procedimientos establecidos en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3.- La notificación por medios electrónicos se entenderá rechazada cuando hayan transcurrido 10 días naturales desde la puesta a disposición de la notificación sin que se acceda a su contenido; y se entenderá cumplida la obligación de notificación en plazo con la puesta a disposición de la notificación

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria:
Alkatea

Mahaikideak
1. Udal arkitekto teknikoa
2. Idazkari-Kontu hartzailea

Mahaiko idazkaria:
Idazkaritza arloko administraria

15. MESA DE CONTRATACIÓN

La Mesa de contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

Presidente/a:
Alcaldesa

Vocales:
1º Arquitecta técnica.
2º Secretaria-interventora

Secretario/a de la Mesa:
Administrativa de secretaria.

16. DOKUMENTUAK ESKATZEA

Kontratazio organoak eskaintzarik onena kalitatea-prezioaren ikuspuntutik aurkeztu duen lizitatzaileari errekerituko dio, errekerimendua jaso eta hurrengo

16. REQUERIMIENTO DE DOCUMENTACIÓN

La licitadora que haya presentado la mejor oferta en base a la mejor relación calidad-precio será requerido por el órgano de contratación para que, en plazo

egunetik hasita HAMAR EGUN BALIODUNeko epean, agiri hauek aurkezteko:

máximo de DIEZ DÍAS HÁBILES, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la siguiente documentación justificativa:

a) Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko A kartazalean aurkezturiko ardurapeko aitorpenean adierazitako dokumentazioa.
Aurkeztutako agirietan akats materialik antzematen badu eta egoki irizten badio, lizitatzaileari gehienez hiru eguneko epea emango dio akats hori zuzen du dezan.

a) La documentación indicada en la declaración responsable presentada en el sobre A relativa a la capacidad para contratar y solvencia, a la debida representación, declaración de no estar incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión; documentación justificativa de disponer efectivamente de los medios que se hubiera comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato

b)Behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.

b) Documento acreditativo de haber constituido la garantía definitiva.

c) Bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen agiria;

c) Documentación acreditativa de hallarse al día en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, consistente en certificaciones expedidas por las administraciones competentes.

d) Kontratuaren xedea den jarduera egiteko estaldura ekonomiko nahikoa duen erantzukizun zibileko aseguruaren poliza harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, eta aseguruaren ordainketan egunean dagoela ziurtatzen duen frogagiria.

d) Documentación acreditativa de la suscripción de la póliza de Seguro de Responsabilidad Civil con cobertura económica suficiente para la actuación objeto del contrato y justificante de estar al corriente en el pago del mismo.

Dokumentuen eskaeraren epea betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela, eta zigor moduan eskatuko zaio lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (kasu honetan negozio-zifrak osatua, kontratuaren hasierako bi urteko epeari dagokionak, hau da, 64.276 €), 71. artikuluaren 2. apartatuko a) letran kontratazioa eragozteko kausei buruz ezarritakoa gorabehera; eta eskaera berri bat egingo zaio haren hurrengo enpresa lizitatzaileari edo lizitatzaileei, eskaeren hurrenkerari jarraiki.

En caso de no cumplimentar en plazo el requerimiento, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle, en concepto de penalización, el 3% del presupuesto base de licitación (que lo constituye en este caso la cifra de negocio del periodo contractual, de dos años, es decir, 64.276 €), sin perjuicio de lo establecido en el artículo en la letra a) del apartado 2 del artículo 71 sobre concurrencia de causa impeditiva de contratación ; y se efectuará un nuevo requerimiento a la empresa licitadora o licitadoras siguientes a aquélla, por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas.

17. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lan eguneko epean, kontratuaren esleipena egingo du.

17. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea denean, epe beraren barruan eta kontratua sinatu baino lehen, elkarte bezala eratuta dagoela frogatzen duen eskritura publikoa aurkeztu beharko du eta elkarteari dagokion IFZ.

En el caso de que el contrato fuera adjudicado a una Unión Temporal de Empresarios deberán éstas acreditar la constitución de la misma, en escritura pública, dentro del plazo otorgado para la formalización del contrato y NIF asignado a la Unión.

Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jotzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable a los trabajadores y trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

18. KONTRATUA BURUTU ETA FORMALIZATZEA

Kontratua administrazio-agiri batean formalizatuko da, hamabost (15) egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko nahikoa titulu izango da. Epe horretan, lizitatzailea agertu beharko da kontratua formalizatzeko.

18. PERFECCIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

El contrato se formalizará en documento administrativo dentro del plazo de quince (15) días hábiles, a contar desde el siguiente al de la recepción de la notificación de la adjudicación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. En dicho plazo, deberá comparecer la licitadora para formalizar el contrato.

III. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

19. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratua kontratistaren gain eta bere kontura bete beharko da.

2.- Agiri honetan jasotzen diren klausulei eta espedienteari erantsitako espezifikazio teknikoei lotuta betearaziko da kontratua, eta hura interpretatzeko Udalak kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

3.- Taberna-jatetxearen jarduerak esleipenaren kontratua sinatu eta HILABETEKO epean hasi beharko du, eta baldintzen agiri honetan zehazten den garai eta forman gauzatu beharko da.

4.- Kontratistak plegu hauetan zehaztutako kalitatearekin eta maiztasunarekin gauzatuko ditu lanak, bai eta kontratatu den zerbitzua eman ere, edozein dela erakunde esleipendunaren barne eta kanpoko egoera, adibidez, lan arazoak eta kontratuaren jarduera normalean eragina izan dezakeen beste edonolako egoera. Garbi, egoera onean eta behar bezala funtzionatzeko moduan mantendu beharko ditu kontratua betetzeko Udalak utzitako instalazioak, ekipoak, materiala eta agiriak.

5.- Kontratistak kontratua bere kontura onartzen duela ulertuko da, SPKLaren 197. artikuluaren

19. **EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

1.- La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la contratista.

2.- El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y a las especificaciones técnicas unidas al expediente, de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diese a la contratista el Ayuntamiento.

3.- La actividad del bar-restaurante deberá iniciarse en un plazo máximo de UN MES contado desde la firma del contrato de adjudicación, debiendo ejecutarse en tiempo y forma determinados en el presente pliego de cláusulas.

4.- La contratista deberá prestar el servicio con la continuidad y calidad prevista en estos pliegos, así como realizar el servicio contratado con independencia de las circunstancias internas o externas de la entidad adjudicataria, tales como conflictos laborales y cualquier otra que pueda afectar al desarrollo normal del contrato. Deberá conservar en perfecto estado de funcionamiento, limpieza e higiene y conservación las instalaciones, equipos, material y documentos varios que fueren cedidos por el Ayuntamiento para la realización del contrato.

5.- El contrato se entenderá aceptado por la contratista a su “riesgo y ventura”, con arreglo al artículo 197 de la

arabera. Dena den, esleipendunak ezin dio Administrazioari eskatu edaritegi-jatetxearen jardueraren kudeaketa ekonomikoan gerta litekeen defizit osoa edo horren zati bat bere gain har dezala.

LCSP, sin que pueda exigir de la Administración por ninguna circunstancia que ésta asuma total o parcialmente el eventual déficit en la gestión económica de la actividad de bar-restaurante.

6.- Zizurkilgo Udalak ez du inolaz ere parte hartuko ustiaketaren finantziazioan. Era berean, esleipendunari ez dio gutxieneko diru-biltze edo irabazirik ziurtatuko, ezta inolako diru-laguntzarik emango.

6.- El Ayuntamiento de Zizurkil no participará en la financiación de la explotación de forma alguna. Tampoco asegurará al adjudicatario una recaudación o rendimientos mínimos ni le otorgará subvenciones de ninguna clase.

7.- Zizurkilgo Udalak ez du hornitzaileei ordaindu beharrekoa ez ordaintzearen ardura hartuko, eta ez ditu bere gain hartuko beste batzuek instalazioetan egin ditzaketen narriadurak edo lapurretak.

7.- El Ayuntamiento de Zizurkil no se hace responsable de la falta de pago a los proveedores ni de los deterioros o robos que se puedan cometer por terceros en las instalaciones.

8.- Udala erabat aske geratuko da erantzukizun penaletik, zibiletik edo beste mota bateko erantzukizunetik, bai ez-ordaintze kasuetan, bai zerbitzatutako janariak sortutako intoxikazioetan, bai beste edozein arrazoirengatik sortutako arazoetan.

8.- El Ayuntamiento quedará totalmente exonerado de cualquier responsabilidad penal, civil o de cualquier otra índole, bien sea por impagos, por intoxicaciones producidas por el consumo de los productos suministrados o por cualquier otro tipo de motivos.

9.- Zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen administratiboak lortzea beti esleipendunaren kontura joango da, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

9.- La obtención de cuantas licencias o autorizaciones administrativas sean precisas para la prestación del servicio, correrá siempre a cargo de la persona adjudicataria, quien deberá solicitarlas en su nombre.

20. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

20. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA

1. Agiri honetan jasotakoaz eta aplikagarri diren araudi osagarriez gain, honako hauek dira bereziki kontratistaren betebeharrak:

1. Además de las contenidas en este Pliego y de las que resulten de la aplicación de las normas supletorias son especiales obligaciones de la contratista las siguientes:

a) Kontratuan bertan zehaztutako denboran eta tokian gauzatzea kontratua, preskripzio teknikoen eta baldintza administratiboen arabera, eta haien interpretaziorako Administrazioak esleipendunari ematen dizkion jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, oso-osorik edo zati bat, beste pertsona baten esku utzi, Administrazioak aldez aurretik eta espresuki baimendu gabe.

a) Ejecutar el contrato en el tiempo y lugar fijados en el contrato y de conformidad con las condiciones técnicas y cláusulas administrativas y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diere a la contratista la Administración, no pudiendo ceder, en todo o en parte, el contrato a otra persona sin autorización expresa de la Administración.

b)
b.1) Esleipendunak zuzenean eman beharko du ustiaketa, berak dituen baliabide eta langileekin.

b)
b.1) La persona adjudicataria prestará la explotación directamente con los medios y personal de que disponga.

b.2) Zerbitzua emateko esleipendunak bere kontura jartzen edo kontratatzen dituen langileek ez dute inolako harremanik edukiko Zizurkilgo Udalarekin. Aipatu langileak esleipendunaren mende egongo dira soil-soilik eta esklusiboki; enpresa kontratistaren antolakuntza egituraren mende burutuko dituzte beti lanak; eta hark helaraziko dizkie beren lana modu egokian burutzeko beharrezkoak diren elementu materialak.

b.2) El personal que, en su caso, por su cuenta aporte o contrate la persona adjudicataria para el servicio no adquirirá relación alguna con el Ayuntamiento de Zizurkil. Dicho personal depende única y exclusivamente de la persona adjudicataria y desarrollará sus funciones dependiendo siempre de la estructura organizativa de la empresa contratista, quien les dotará de los elementos materiales precisos para el correcto desempeño de su trabajo.

b.3) Esleipendunak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan arloan bereziki aplikagarri den Hitzarmenean xedatutakoak, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu. Udalak ez du inongo erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

b.3) La contratista tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrón y estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en material laboral, especialmente las fijadas en el Convenio aplicable, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

b.4) Udalak kontratua amaitu aurretik edo amaitutakoan zerbitzua berreskuratzea erabakiko balu, Udala ez da arduratuko esleipendunak kontratatutako langileez, ezta kontratutik edo kontratua amaitzetik sortutako inolako ordainketa edo kalte-ordainen erantzule ere egingo.

b.4) En el caso de que el Ayuntamiento acordara el rescate del servicio, antes de o a la finalización del contrato, el Ayuntamiento no se hará cargo del personal contratado por la persona adjudicataria, ni se responsabilizará del abono de indemnización alguna que pudiera derivarse del contrato o de su finalización.

c) Hileko kanona ordaintzea, hil horretako lehenengo bost egunetan. Ezarritako kuotak ordaintzeko garaian, hirurogei egun baino gehiagoko atzerapena edukiz gero, bertan behera geratuko da kontratua automatikoki.

c) Abonar el canon mensual dentro del plazo de los primeros cinco días del mes en curso. La demora en el pago de las cuotas establecidas en más de sesenta días, será causa automática de resolución del contrato.

d) Hitzartutako maiztasunarekin ematea zerbitzua, eta erabiltzeko eskubidea bermatzea partikularrei, ezarritako baldintzen arabera.

d) Prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a los particulares el derecho a utilizarlo en las condiciones establecidas.

e) Esleipendunak bere gain hartzen ditu betebehar hauek, ustiaketak irauten duen bitartean: ur, gas, argindar, e.a. hartuneak gauzatzeko dagozkion baimenak lortzekoa eta mantentzekoa, nahiz izaera fiskaleko eta komertzialeko Erregistro Publikoetan eta Gizarte Segurantzakoetan alta eman eta inskribatzekoa.

e) La persona adjudicataria se obliga a obtener y mantener, durante el período que dure la explotación, las autorizaciones y permisos correspondientes para la ejecución de las acometidas de agua, gas, electricidad, etc., y a darse de alta e inscribirse en los Registros Públicos de carácter fiscal, comercial y de Seguridad Social.

f) Kontratistak bere gain hartzen du honako betebehar hau: kontratuaren jardun-eremua osatzen duten eraikina, instalazioak eta ekipamendua egoera onean zaintzekoa, garbiak eta higienikoki eta kontserbazio aldetik modu egokian. Era berean, bere kontura izango dira beharrezkoak

f) La contratista se obliga a mantener en buen estado de funcionamiento, limpieza e higiene y conservación la construcción, instalaciones y el equipamiento que constituyen el objeto del presente contrato, siendo a su cargo las reparaciones y trabajos de entretenimiento necesarios cualquiera que sea su importe o causa.

diren konponketak eta mantentze-lanak, edozein dela ere bere kostua edo arrazoia.

Matxuraren arrazoia zerbitzuaren funtzionamendu normaletik apartekoa edo besteren bat balitz, konponketa Udalaren kontura izango da.

Si la causa de la avería fuera distinta o ajena al normal funcionamiento del servicio, la reparación será a cuenta del Ayuntamiento.

Udala jakinaren gainean jarri beharko du matxurez eta konponketa-beharrez, horretaz konturatu orduko. Horretarako, harremanetan jarri beharko du Udaleko zerbitzu teknikoekin, horretarako emango zaion telefono zenbakira deituz, edo besterik ezean, Udaltzaingora abisua pasaz.

Deberá poner sobre aviso al Ayuntamiento en caso de averías o necesidad de reparaciones, en el mismo momento de que tenga su conocimiento. Para ello, deberá ponerse en contacto con los servicios técnicos municipales, a través del número de teléfono que se facilitará al adjudicatario, o en última instancia, dando el aviso a la policía municipal.

Urari, argiztapenari eta berokuntza-sistemari lotutako konponketak edo instalazio ordezkapenak egitea suertatzen denean, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko irizpideak ezarri beharko dira. Horrelakoetan, Udala puntualki informatu beharko da eta Udalaren adostasuna lortu beharko da aldez aurretik.

En el momento que haya que acometer arreglos o modificaciones, así como cambios de instalaciones, relacionados con el agua, iluminación o del sistema de calefacción, se aplicarán criterios de ahorro y eficiencia energética. En estos casos, será necesario informar al Ayuntamiento y conseguir acuerdos de manera previa a las modificaciones.

g) Lan-arloko legeriari, Gizarte Segurantzari eta Hitzarmen Kolektiboei dagokienez indarrean dauden xedapen guztiak betetzea, baita Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 legeak eta hori garatzen duten Errege Dekretuek xedatzen dutena ere (bereziki langileentzako formazio-ekintzei eta norbera babesteko ekipoen horniketari dagokionez), baita zerga gaietakoek ere. Nolanahi ere, haiek ez betetzeak dakartzan edozein erantzukizunetatik erabat libre gelditzuko da udalbatza.

g) Cumplir cuantas disposiciones se hallen vigentes en materia de Legislación Laboral, Seguridad Social, Convenios Colectivos, y todo lo comprendido en la Ley 31/1995, de Prevención de Riesgos Laborales y en los Reales Decretos que la desarrollan (especialmente en lo relativo a acciones formativas para el personal y dotación de equipos de protección individual), así como en materia tributaria, quedando la Corporación Municipal totalmente liberada de cualquiera responsabilidad que pudiera derivarse del incumplimiento de aquéllas.

h) Kontratista izango da erantzulea jardueraren ondorioz pertsonei edo gauzei -nahiz Udalaren jabetzako gauzak izan- istripurik edo kalterik gertatuz gero, kaltea Udalari egotz dakiokeenean izan ezik. Horretarako, esleipena egiten den egunetik 15 eguneko epearen barruan, erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko du hirugarrenei sortutako kalteei aurre egiteko, esleipenak dirauen bitarterako. Poliza ez da inoiz izango 600.000,00 euro baino txikiagoa.

h) La persona adjudicataria será responsable de cualquier accidente o daño que pueda ocasionarse a personas o cosas, incluso de dependencia o propiedad municipal, como consecuencia de la actividad, excepto cuando el daño sea producido por causas imputables al Ayuntamiento. A tales efectos, y dentro del plazo de quince días, a contar desde la fecha de la adjudicaci, deberá suscribir para el tiempo de la adjudicación una póliza de responsabilidad civil frente a terceros. La póliza se contratará por importe no inferior a 600.000,00 euros.

i) Euskararen inguruko betebeharrak: Kontratua betetzeaz arduratzen den enpresaren eta erabiltzaileen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioetan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabili beharko da. Dena den,

i) Obligaciones respecto del euskara: Las comunicaciones tanto verbales como escritas de la empresa responsable de la ejecución del contrato y de las personas usuarias o que por el objeto del contrato tengan que relacionarse deberán utilizar la lengua oficial que, en su caso, hayan elegido la personas

jardueraren izaerak edota hartzaileek euskararen erabilera eskatzen badute, euskara erabiliko da.

usuarias, salvo que la naturaleza de la actividad y/o las características de las personas destinatarias exijan el uso del euskara.

Bermatu beharko da harremanetan egoteko herritarrek ahoz zein idatziz euskara erabili ahal izango dutela. Eta hori bete ahal izateko, kontratuaren xedearekin loturiko langile guztiak elebidunak izan beharko dira. Ondorioz, udal-langileekin edo, oro har, herritarrekin harreman zuzena izango dutenak elebidunak izan beharko dira, hau da, udalean lan egiteko hizkuntza-eskakizunei dagokienez eskatuko litzaizkiekeen baldintzak bete beharko dituzte.

Deberá garantizarse que la ciudadanía no tenga impedimentos para relacionarse en euskara, tanto a nivel oral como escrito. En consecuencia, el personal que tenga relación directa con el personal municipal o con el público, en general, deberá ser bilingüe, por lo que deberán garantizar el cumplimiento de las condiciones que se les requeriría para desarrollar su labor en el propio Ayuntamiento en lo relativo a los perfiles lingüísticos.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko bi aukera daude, oro har: eskatutako gaitasun mailaren ziurtagiria aurkeztea edo udaleko Euskara Zerbitzuak egiaztatzea.

La capacitación lingüística se acreditará, en general, por alguno de estos dos medios: documento de acreditación de la competencia lingüística exigida o mediante acreditación dispuesta por el Servicio de Euskara del Ayuntamiento.

Administrazio kontratatzailearekin izan beharreko harremanetan, kontratua gauzatzeko, oro har, euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari dagokionez, «oro har euskara erabiliko da» esaldiak bi gauza hauek esan nahi ditu: a) Ahozko komunikazioetan, euskara dakiten langileek, printzipioz, euskara erabiliko dute administrazio kontratatzailearekin harremanetan jarri behar dutenean kontratua gauzatzeko beharrezkoa denean. Administrazio kontratatzaileak euskara erabiltzen badu kontratua gauzatzen ari den pertsonarekin, eta pertsona horrek ez badu euskara ondo menderatzen, enpresa adjudikaziodunak euskara menderatzen duten edota, administrazioarekin kontratua gauzatzeko izan behar den harremana euskaraz izan dadin, behar diren baliabideak dituzten beste langile batzuk jarri beharko ditu berehala, eta, b) Idatzizko komunikazioak euskaraz izango dira, fakturak eta gainerako salerosketa-agiriak barne.

En las relaciones con la Administración concedente a efectos de ejecución de las prestaciones contenidas en la concesión se utilizará, por lo general, el euskara. Respecto a la ejecución de las citadas prestaciones, se entiende como "se utilizará por lo general el euskara" lo siguiente: a) En las comunicaciones verbales, el personal que tenga conocimiento de euskara, en principio, empleará el euskara cuando, por las labores exigidas para la prestación, se ponga en contacto con la administración concedente. Cuando la administración concedente se dirija en euskara a la persona que esté ejecutando el contrato y esta no domine correctamente dicha lengua, la empresa concesionaria dispondrá inmediatamente personal con conocimiento adecuado de euskara o los medios oportunos para que los contactos que deba mantener con la administración se realicen en euskara; y, b) las comunicaciones por escrito se harán en euskara, incluidas las facturas y el resto de la documentación.

j) Elikadura jasangarria eta osasuntsuarekin bat datozen irizpideak kontuan hartuko ditu esleipendunak.

j) La persona adjudicataria tomará en cuenta criterios que coincidan con la alimentación sostenible y saludable.

Jan Tolosaldea akordioa betetze aldera, esleipendunak eskualdean ekoitzitako eta garaikoak diren elikagaiak erabiliko ditu menuak prestatzeko. Kartaren eta menuaren %20a

Con el objetivo de cumplir el acuerdo *Jan Tolosaldea*, la persona adjudicataria utilizará alimentos producidos en la comarca y de temporada a la hora de preparar los menús. Se garantizará que al menos el 20% de los platos de la carta y el menú, sean de productos locales y de temporada.

gutxienez, bertako produktuak eta garaikoak izatea bermatuko da.

